

*TERRORISMOAREN BIKTIMEN
OROIMENERAKO ZENTROA*



Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa

Zuzendaria

Florencio Domínguez Iribarren

Erakusketen arduraduna

Raúl López Romo

Museografia eta Diseinu

Estudio GD Gestión de Diseño S.L.



CENTRO MEMORIAL DE LAS
VÍCTIMAS DEL TERRORISMO
TERRORISMOAREN BIKTIMEN
OROIMENERAKO ZENTROA



Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa topaketarako gune bat da, hausnartzeko eta balio demokratikoak defendatzeko gunea. Lau printzipio nagusi ditu ardatz: egia, oroimena, duintasuna eta justizia.

"Egia" hitzak terrorismoaren historia ahalik eta zehaztasun handiekin kontatzea esan nahi du, zer gertatu zen jakiteko. Hemen pedagogia egiten dugu, eskura dugun dokumentazioarekin eta biktimen ahotsa bera baliatuz.

"Oroimena", intentzionaltasun politikoko indarkeriaren bidegabekeria aintzat hartzen laguntzeko, eta irakaspen zibiko gisa, gertatutakoa errepikatu ez dadin.


"Duintasuna", biktimek inoiz galdu ez zutena, erasotzaileek estigmatizatzeke edo beren helburuak lortzeko erabiltzeko ahaleginak egin arren.

"Justizia" zigorgabetasunaren aurkakoa da; krimena egin duenaren erantzukizunak finkatzea da. Modu zabalagoan ulertuta, erakunde demokratikoek eta gizarte osoak biktimek jasandako kaltea ahal den heinean erreparatzea dakar.


Memorialak erabiltzaileen eskura jartzen ditu, besteak beste, dokumentazio zentro bat, ekitaldi areto bat, gela didaktiko bat, eta erakusketa iraunkorrak eta aldi baterakoak dituen museo bat.

Erakusketa iraunkorra sei aretotan banatzen da. Lehenengoa, *Hemen, atzo*, harrera egiteko gunea da. Une horretatik aurrera, biktimen begirada gurekin izango dugu ibilbide osoan zehar.

SARRERA ETA LEHEN SOLAIRUA



BIGARREN SOLAIRUA





Velasco Vidal-Abarca sendia

MEMORIAL EREMUA

Gune honek aurrendari izandako Ana María Vidal-Abarca gasteiz-tarraren izena du. Berak bultzatu zuen Espainiako terrorismoaren biktimen lehen elkartearen, Hermandad de Familiares, gaur AVT denaren sorrera, 1980ko abenduan. Hilabete gutxi ziren ETak bere senarra, Jesús Velasco komandantea, hil zuela.

Memorial Eremuan, José Ibarrolaren pintura bat nagusitzen da, eta haren protagonista ia egunero erabili ohi dugun tresna bat da. Aterkiak nonahi ikus daitezke Euskadin egun euritsu batean. Ibarrolak metafora bihurtzen du: ustez babestu egiten zaitu, baina azkenean, ez du eragozten zu bustitzea. Artistaren inspirazioa ETak 2000 urtean bere lagun José Luis López de Lacalle hil zuen lekuan ateratako argazki bat izan zen: biktima lurrean etzanda eta izara zuri batekin estalita zegoen, eta haren ondoan aterki gorri bat zegoen zabalik. Urte batzuk geroago, motibo hori Fernando Arambururen *Patria* eleberri ospetsuaren azalean agertu zen.

Museoa Espainian jardun izan duten terrorismo guztien biktimei eskainita dago. Haien helburu politikoak lortzeko hiltzen zuten, dela lurralde baten independentzia lortzeko, ETaren kasuan bezala, dela eskuineko edo ezkerreko diktadura bat ezartzeko, dela shariaren —lege islamikoaren— bertsio zorrotz eta minoritario bat ezartzeko.



Javier Cebollada, EFE

TERRORISMOAREN HISTORIA

Memoriala Historia ere bada. Eginkizun pedagogikoa du, eta Historia azalpenetarako oinarri gisa eta bizitzarako maisu gisa erabiltzen du. Hemen, beraz, egitateak denboran eta espazioan kokatzen dira.

Kronologia 1960.ean hasi, eta gaur egunera arte iristen da. Hiru alditan banatzen da: diktadura frankista, trantsizioa eta demokrazia. Horietako bakoitzean, urtez urte terrorismoarekin lotuta egon ziren gertakari garrantzitsuenak laburbiltzen dira: ETaren hastapenak, Luis Carrero Blanco Gobernu frankistako presidentearen hilketa, Rolando kafetegiko sarraskia, Zaragozako kuartel-etxearen aurkako bonba-autoa, GALak, M-11...

Terrorismoa ez da tokiko fenomeno, ezta duela gutxikoa ere. XIX. mende amaieran agertu zen bere itxura modernoan, eta kontinente guztietako herrialdeei eragin die; horren adibide dira 2001eko irailaren 11n Estatu Batuetan gertatutako erasoak bezalako mugarri izugarriak. Baina garaia edo terroristek darabilten aitzakia alde batera utzita, denek dute printzipio berbera. Haien iritziz, helburuak bitarteko odoltsuak justifikatzen ditu. Hala ere, Sebastián Castellion humanistak XVI. mendean defendatu zuen bezala, "gizon bat hiltzea ez da doktrina bat defendatzea, gizon bat hiltzea baizik".



GORROTOAREN DISKURTSOAK ETA PRAKTIKAK

Memoriala terrorismoaren biktimei eskainita egon arren, txanponaren beste aldea ere azertu behar dugu, indarkeria baliatu zutenena. Garrantzitsua da identifikatzea, eta haien ideologia, helburuak eta metodoak ezagutzea. Berez diren bezala erretratatzea da zilegitasuna kentzeko modurik onena.

Erakunde terrorista guztiek elementu komun batzuk dituzte: intentzionaltasun politikoa, fanatismoa eta aurkariak beldurtzeko indarkeria erabiltzea. Aitzitik, ideologiaren edo taktiken arabera bereizten dira.

Aretoa lau zatitan banatuta dago. Lehenengoa ETAr buruzkoa da, Espainian gehien hil duen, gehien iraun duen eta babes sozial handiena izan duen erakundeari buruzkoa. ETAk Euskadiren independentzia aldarrikatzen zuen. Helburu hori lortze aldera, 853 pertsona erail zituen 1968 eta 2010 bitartean. Bere jarduerak, halaber, 2.600 zauritu, 80 bahitutik gora, eta mehatxatu eta erbesterratu kopuru zehaztugabea utzi zituen.

Bigarren zatiak terrorismo ultraeskuindar eta parapolizialean jartzen du arreta, trantsizioan zehar egon zen horretan. 1983 eta 1987 artean, politikarien eta legearen agenteen talde batek GAL sortu zuen, ETaren aurkako talde terrorista, 27 pertsona erail zituen.

Hirugarrenik, ezker muturreko terrorismoak izen nagusi bat du Espainian: GRAPO, Grupos de Resistencia Antifascista Primero de Octubre.

Azkenik, gaur egun dirauen mehatxu terrorista nagusia jihadismoarena da, 2004ko martxoaren 11ko sarraskien erantzule dena, besteak beste.



TERROREARI ERANTZUNA

Gune hau hainbat zatitan banatuta dago, eta terrorismoaren aurrean izandako jarduketak aztertzen ditu: poliziala, judiziala, politikoa eta soziala. Segurtasun Gorputz eta Indarretako ki-deak ezinbestekoak izan dira gaitz honi aurre egiteko orduan, eta badaude aipatzekoak diren zenbait mugarri: ETako buruzagi guztien atxiloketa Bidarten edo GRAPOn desagitea, besteak beste. Baina larrutik ordaindu dute ere. Haien artekoak dira bik-tima gehienak. Terroristentzat eta haien akolitoentzat legearen agenteak gorroto duten guztia islatzen duen uniforme bat bes-terik ez badira ere, hemen bere aurpegi gizatiarra eta duinta-suna itzultzen dizkiegu.

Ajuria Eneako ituna, euskal alderdi demokratiko guztiek sinatu zutena, terrorismoaren aurkako batasunaren adibide nagusia da; dena den, terrorismoari ematen zaion erantzun politikoa gorabe-heretz beteta dago.

Terrorismoarena historia iluna da, baina badu zati argitsurik ere: aurre egin, hilketak eta mehatxuak publikoki salatu eta, azken batean, gizartearen zati bat mobilizatzen lagundu zutenena. Mugimendu bakezale eta zibikoa hezurmamitu zuten hainbat elkarte egon ziren, hala nola Gesto por la Paz (Konkordiaren As-turiasko Printzea Saria 1993an) edo Basta Ya (Kontzientzia Aska-tasunaren Sájarov Saria 2000 urtean).



Luis Alberto García, *El País*

BIKTIMEN AHOTSA

Kaltetuen presentzia ibilbide osoan jarraitua izan den arren, erakusketa iraunkorraren seigarren eta azken aretoa berariaz eskainita dago haien zuzeneko lekukotzak entzuteari. Memorialak zentzurik badu, haiek beren bizipenak lehen pertsonan azaldu ahal izatea da.

Lekukotza horiek hainbat une eta lekutan agertu dira: hedabideetan egindako elkarrizketak dira, dokumentaletan egindako agerraldiak edo ikastetxeetan eskainitako hitzaldiak. Artxibo tristetia da hau, baina beharrezkoa da ezagutzea, balio pedagogiko benetan handia baitu. Pantaila handietan terrorismo mota desberdinen biktimen lekukotzen hautaketa bat ikus daiteke. Ordenagailuetan gure lekukotzen artxibo osoa dago gordeta; guztira mila lekukotza baino gehiago daude eta etengabe ari da erakitzen.

Terrorismoaren biktimek zapuztuta geratu zen bizitza bat zuten, eta ez zen istripu baten erruz eten, norbaitek bizitza kendu nahi izan zielako baizik. Gu izan gintezkeen. Horregatik, Primo Levik esan zuen bezala "guztion betebeharra da gertatu zenaren inguruan gogoeta egitea".

Erantzun guztiak eman beharrean, erakusketa honetan hiru galdera nagusiren inguruan hausnartzeko gonbidapena egiten da: lehenik eta behin, nola da posible gertatutakoa gertatu izana? Bigarrenik, zer egingo nukeen nik egoera hartan? Eta hirugarrenik, zer egin dezaket errepikatu ez dadin?

INFORMAZIOA

Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa

www.memorialvt.com

memorial@centromemorialvt.com



CENTRO MEMORIAL DE LAS
VÍCTIMAS DEL TERRORISMO
TERRORISMOAREN BIKTIMEN
OROIMENERAKO ZENTROA

Helbidea - Telefono zenbakia

Agirre Lehendakariaren kalea 2

01001 Vitoria-Gasteiz

+34 945 198 130

